**A LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA**

REGISTRO DE ENTRADA EN EL
DEPARTAMENTO FORAL DE MEDIO
AMBIENTE EL 8 DE MARZO DE 2010

Dª......, mayor de edad, Presidenta del COLEGIO DE INGENIEROS/AS DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS DEL PAÍS VASCO, actuando en representación del mismo, ante esta Diputación comparezco y como mejor proceda en derecho,

**DIGO:**

Que, con fecha 1 de marzo de 2010 se ha publicado en el Diario Oficial de la Unión Europea, el anuncio de licitación del procedimiento de contratación iniciado por ORDEN FORAL Nº 162/2010, DE 15 DE FEBRERO, DEL DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y URBANISMO, DE INICIACIÓN DEL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIOS DE ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA REALIZACIÓN DEL DOCUMENTO DE INFORMACIÓN Y DIAGNÓSTICO DEL ÁMBITO DE ARMONIZACIÓN Y DEL ÁMBITO DE ESTUDIO DE LA ORDENACIÓN DEL ENTORNO DE LA RÍA.

Que, por medio del presente escrito, en forma y plazo hábiles, formulo conforme al artículo 37 de la Ley 30/2007, de 30 de octubre, de Contratos del Sector Público previo, en su caso, a la vía judicial contencioso administrativa, **RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN** contra dicha convocatoria por entender que es contraria a derecho y afecta a los legítimos intereses de los/as Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos, sobre la base de las siguientes alegaciones

## ALEGACIONES

**PRIMERA.-**
En el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, en relación al apartado del mismo relativo a la documentación general y referencias económicas, financieras, técnicas o profesionales, en su apartado 7.5.2, número 4, se establece que "el equipo humano que se oferta para la realización del presente contrato y currículo vital de cada uno de los miembros del equipo del que deberán formar parte, al menos: dos Arquitectos/as superiores (uno de ellos como director del equipo), un Licenciado en Derecho con experiencia en materia urbanística".

**SEGUNDA.-**
Que los/las titulados/las en Arquitectura no son los/las únicos/as titulados/as que ostentan competencias en materia de Urbanismo y Ordenación, ya que los/las Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos también ostentan competencias en las citadas materias. Estas competencias de los/las Ingenieros/as de de Caminos, Canales y Puertos (urbanismo y ordenación) han sido legal y jurisprudencialmente reconocidas.

000287

Además, los/las Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos tienen competencia exclusiva en materia relativa al dominio público hidráulico, riberas, etc., por lo que resulta especialmente indicada la presencia de estos titulados en caso de que la actuación Urbanística a la Ordenación del entorno de la Ría pudieran afectar a cauces o riberas de ríos públicos.

Finalmente no se entiende un plan de Ordenación y Urbanización sin tener en cuenta que en el mismo, indudablemente, va a contener elementos de ordenación viaria y comunicaciones, por lo que la presencia de los/las Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos es también necesaria, al tener éstos las competencias atribuidas en la citada materia.

La competencia en materia de Urbanismo y Ordenación de los/las Ingenieros/as de Caminos, y la relación de éstos titulados con dichas competencias es añeja y no ofrece ninguna duda, ya que históricamente, los/las Ingenieros/as de Caminos desarrollaban su actividad profesional para el Estado, aunque ahora dicha circunstancia ha ido evolucionando, ya que las Administraciones Autonómicas, Regionales y Locales, cada vez absorben mayor número de estos titulados que asumen tareas relacionadas con el planeamiento, la gestión urbanística, o el urbanismo aplicado.

Igualmente, dentro de este contexto histórico mencionado, hay que señalar que los/las Ingenieros/as de Caminos pusieron las bases de lo que hoy se conoce como Ordenación del Territorio, mediante la implantación de infraestructuras de transporte que han posibilitado los asentamientos de poblaciones y la conectividad entre ellas. También hicieron posible que estos asentamientos pudieron disponer de los servicios urbanísticos necesarios, como el abastecimiento de agua potable y el saneamiento, condición necesaria para que el suelo sea edificable, junto con el acceso rodado.

Debemos recordar que fue el Ingeniero de Caminos Idefonso Cerdá el creador de la Teoría General de la Urbanización.

Existen numerosas normas, como luego se verá que establecen la especialidad en materia de Urbanismo, cuyo contenido viene a ser ratificado y asumido por el propio el Ministerio de Educación y Ciencia al determinar en el año 1969 que sólo los/las Arquitectos/as y los/las Ingenieros/as de Caminos, debido a sus planes de estudio, estaban capacitados para formular y realizar planes generales o parciales de ordenación urbana y proyectos de urbanización, complementado por el Consejo de Universidades que con posterioridad a 1978 manifestó que no era admisible la intervención con capacidad y responsabilidad plena de otros titulados que no fueran los/las Arquitectos/as o los/las Ingenieros/as de Caminos en la redacción de planes y proyectos de urbanización; manifestando igualmente, que la intervención de otros titulados que sean los expresados se realizará con carácter de complementariedad, formando parte de equipos multidisciplinares, cuya dirección corresponderá, en todo caso, a los/las Arquitectos/as y a los/las ingenieros/as de Caminos.

000288

**TERCERA.-**

Que de acuerdo a lo anterior, mediante la cláusula 7.5.2.4 del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, siendo competentes los/las Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos, éstos no pueden concurrir, restringiéndose la posibilidad de licitación exclusivamente para empresas que cuenten entre sus profesionales con titulados Arquitectos/as superiores (en este caso, además, dos) y no se permite, en consecuencia, el acceso a empresas que en su equipo humano cuenten con titulados/as en Ingeniería de Caminos, Canales y Puertos pero no Arquitectos/as superiores.

**CUARTA.-**

Por tanto, la citada cláusula 7.5.2, en su apartado 4, debería contener la siguiente redacción:

"4. Relación del equipo humano que se oferta para la realización del presente contrato y currículo vital de cada uno de los miembros del equipo del que deberán formar parte al menos:

- Dos Arquitectos/as superiores ó Dos Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos (uno de ellos como director del equipo).
- Un Licenciado en Derecho con experiencia en materia urbanística".

Primeramente, debido a que los/las Ingenieros/as de Caminos ostentan también competencias en la materia, junto a los/las Arquitectos/as, y en plano de igualdad; y segundo, dado que los/las Ingenieros/as de Caminos tienen reconocidas competencias en materia de urbanismo y ordenación, nada impide, además, que el director del equipo sea un titulado en Ingeniería de Caminos, Canales y Puertos.

Por lo expuesto,

**SOLICITO** A LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA tenga por presentado este escrito, se sirva admitirlo, y en su virtud, tenga por formulado **RECURSO ESPECIAL EN MATERIA DE CONTRATACIÓN**, contra el anuncio de la licitación publicado el 1 de marzo de 2010 en el Diario Oficial de la Unión Europea, cuyo Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, ha sido aprobado por ORDEN FORAL Nº 162/2010, DE 15 DE FEBRERO, DEL DEPARTAMENTO DE TRANSPORTES Y URBANISMO, DE INICIACIÓN DEL PROCEDIMIENTO DE ADJUDICACIÓN DEL CONTRATO DE SERVICIOS DE ASISTENCIA TÉCNICA PARA LA REALIZACIÓN DEL DOCUMENTO DE INFORMACIÓN Y DIAGNÓSTICO DEL ÁMBITO DE ARMONIZACIÓN Y DEL ÁMBITO DE ESTUDIO DE LA ORDENACIÓN DEL ENTORNO DE LA RÍA; y siguiéndose el recurso por sus trámites se dicte en su día resolución en la que se estime el presente recurso y, en consecuencia, se acuerde:

000289

a. SUSPENDER el acto impugnado basándose en el perjuicio que pudiera causar a un importante grupo de Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos, la imposibilidad de concurrir a la licitación, perjuicios que afectan a derechos constitucionalmente protegidos como es el de igualdad ante la Ley y que inspiran la normativa de contratación pública, como son los de objetividad y libre concurrencia en términos de igualdad y no discriminación. Por otra parte los motivos que aconsejan la presentación del recurso gozan de la apariencia de buen derecho que aconseja la suspensión solicitada que, en último orden, beneficia igualmente al interés público al permitir la concurrencia de un mayor número de licitadores, todos plenamente capacitados técnica y profesionalmente, con lo que se dispondrá de un mayor número de proyectos que, indudablemente, deben beneficiar a la calidad final del procedimiento, y en todo caso evitar las consecuencias de una ulterior decisión judicial que, en su caso, pudiera declarar la nulidad del procedimiento de adjudicación. Que de no acceder a la suspensión y continuar la tramitación del procedimiento, podría perderse la finalidad legítima del recurso con lo que quedaría definitivamente quebrada la aplicación de los principios de objetividad, igualdad, no discriminación y libre concurrencia que se configuran como uno de los pilares que deben presidir la contratación administrativa en todo el ámbito de la Unión Europea.

b. ANULAR el acto administrativo por ser contrario a derecho.

c. MODIFICAR el anuncio de licitación del contrato de servicios de Asistencia Técnica para la Realización del documento de información y diagnóstico del ámbito de armonización y del ámbito de estudio de la ordenación del entorno de la ría, y el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, publicado el 1 de marzo de 2010 en el Diario Oficial de la Unión Europea, en el sentido de incluir a los/las INGENIEROOS/AS DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS en los mismos.

d. PUBLICAR nuevamente la convocatoria pública con las modificaciones oportunas, en el sentido solicitado, en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, a fin de que puedan concurrir en la nueva convocatoria los/las INGENIEROS/AS DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS.

Por ser de Justicia pido en Bilbao a 7 de marzo de 2010.

FDO: La Presidenta del COLEGIO DE INGENIEROS/AS DE CAMINOS, CANALES Y PUERTOS DEL PAÍS VASCO

000290

1. ¿Ostenta la Presidenta del Colegio de Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos del País Vasco personalidad y representación para recurrir?. ¿Ostenta el Colegio de Ingenieros/as de Caminos, Canales y Puertos del País Vasco legitimación para recurrir?. ¿Cómo debería acreditarlas?.

2. El acto administrativo descrito ¿es susceptible del recurso interpuesto?. Razónese.

3. ¿Ha sido interpuesto el recurso en tiempo, forma y ante el órgano competente?. ¿Cuál es el órgano competente para su resolución?.

4. ¿Procede o no la suspensión del acto recurrido?. Razónese.

5. La cláusula recurrida del Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares ¿infringe el ordenamiento jurídico?. ¿Debería estimarse o no el recurso interpuesto?. ¿Qué efectos tendría su estimación?.

6. ¿Cuál/es sería/n el/los recursos procedente/s contra la resolución que se dicte?.

7. ¿Qué efectos tendría la estimación del/los recurso/s que usted ha señalado como procedente/s a la pregunta anterior?.

---

C00291

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIARI**

INGURUMEN SAILEKO SARRERA-
ERREGISTROA 2010EKO
MARTXOAREN 8AN

Nik, ........................... andreak, Euskal Herriko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoko presidenteak, elkargo horren ordezkari gisa, Aldundiaren aurrean agertu eta zuzenbidearekin ondoen dagokion moduan, honako hau

**ADIERAZTEN DUT:**

2010eko martxoaren 1ean, Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean argitaratu da GARRAIO ETA HIRIGINTZA SAILAREN OTSAILAREN 15EKO 162/2010 FORU AGINDUAren bidez hasitako kontratazio-prozeduraren lizitazio-iragarkia. Foru agindu horren bidez, ITASADAR-INGUURNEKO ANTOLAMENDUAREN HARMONIZAZIO EREMUARI ETA IKERKUNTZA ERAMUARI BURUZKO INFORMAZIO ETA DIAGNOSIAREN AGIRIA EGITEKO AHOLKUALRITZA TEKNIKOKO ZERBITZU-KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURA HASTEN DA.

Idazki honen bidez, modu eta epe baliodunetan, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legeko 37. artikuluarekin bat, administrazioarekiko auzien bidera jo aurretik, **KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA** aurkezten dut deialdi horren aurka; izan ere, uste dut zuzenbidearen kontrakoa dela eta Bide, Ubide eta Portuetako ingeniarien interes legitimoetan eragina duela. Honako alegazioak dira aurreko horren oinarri:

**<u>ALEGAZIOAK</u>**

**LEHENENGOA.-**
Administrazio-klausula partikularren pleguan, dokumentazio orokorrari eta erreferentzia ekonomiko, finantzario, tekniko edo profesionalei buruzko ataleko 7.5.2 puntuko 4. zenbakian, honakoa ezartzen da: "honelakoak izan behar dira kontratu hau egiteko eskaintzen den giza taldea eta talde horretako kideen curriculum vitae-a:goi mailako arkitekto bi (haietako bat taldeko zuzendaria izango da) eta Zuzenbideko lizentziatu bat, hirigintza arloan esperientzia duena."

**BIGARRENA.-**
Arkitekturako tituludunak ez dira hirigintza eta antolamendu arloan eskumenak dituzten tituludun bakarrak; izan ere, Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariek ere badituzte eskumenak arlo horretan. Legeetan eta jurisprudentzian onartuta daude Bide, Kanal eta Portuetako ingeniarien eskumen horiek.

Horrez gainera, Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariek herri jabari hidraulikoan, ibaiertzetan, eta abarretan ere badituzte eskumenak; beraz, bereziki egokia da tituludun horiek parte hartzea baldin eta itsasertzaren inguruko antolamenduko hirigintza-jarduerak eragina izan badezake ibai publikoen ibilgu edo ibaiertzetan.

Azkenik, ezin da ulertu antolamendu eta hirigintzako plan batek barruan ez jasotzea bideak eta komunikazioak antolatzeko elementurik; horretan ez dago zalantzarik. Beraz, horregatik ere beharrezkoa da Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariek parte hartzea, tituludun horiek baitituzte arlo horretako eskumenak.

Hirigintza eta antolamendu arloan Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariek dituzten eskumenak eta tituludun horiek eskumenokin duten lotura aspaldikoa da, eta ez du zalantzarako biderik uzten. Izan ere, historikoki, Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariek Estatuarentzat egiten zuten lan, nahiz eta gaur egun egoera horrek eboluzionatu duen, autonomia-erkidegoetako, eskualdeetako eta tokietako administrazioek gero eta Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari gehiago hartzen dituzte plangintzari, hirigintzako kudeaketari eta hirigintza aplikatuari buruzko lanak egiteko.

Era berean, aipatutako testuinguru historiko horretan, azpimarratu behar da Bideetako ingeniariek egun Lurralde Antolamendua esaten zaion horren oinarriak jarri zituztela, biztanleguneak eta biztanlegune horien arteko konexioak ahalbidetu dituzten garraio-azpiegiturak ezarriz. Horrez gain, posible egin zuten biztanlegune horiek behar dituzten hirigintza-zerbitzuak izatea, esaterako, edateko ura, saneamendua (lurzorua eraikigarria izateko ezinbesteko baldintza) eta ibilgailuentzako bideak.

Gogora ekarri behar dugu Ildefonso Cerdá Bideetako ingeniaria Urbanizazioaren Teoria Orokorraren sortzailea dela.

Badira arau asko —gero ikusiko den bezala— hirigintza arloko espezialitatea ezartzen dutenak. Hezkuntza eta Zientzia Ministerioak, 1969. urtean, berretsi eta hartu zuen espezialitate horren edukia; izan ere, urte hartan xedatu baitzuen arkitektoek eta bideetako ingeniariek bakar-bakarrik zeudela gaituta hiri-antolamenduko plan orokorrak eta partzialak eta urbanizazio-proiektuak egiteko. Ondoren, 1978. urtean, Unibertsitateen Kontseiluak osatu zuen aurreko hori; izan ere, adierazi zuen ezin dela onartu arkitektoez edo bideetako ingeniariez beste tituludunen parte-hartzerik, gaitasun eta erantzukizun osoz. Eta gaineratu zuen beste tituludun batzuek parte hartuz gero, jarduera hori osagarria izango dela diziplina anitzeko talde baten barruan, eta, edozein kasutan, arkitektoei eta bideetako ingeniariei dagokiela taldearen zuzendaritza.

**HIRUGARRENA.-**
Aurrekoarekin bat, administrazio-klausula partikularren pleguaren 7.5.2.4 klausularen arabera, Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariek eskumena izanda ere, tituludun horiek ezin dute parte hartu. Lizitatzeko aukera goi mailako arkitektoak dituzten enpresetara murrizten da (kasu honetan, 2 gainera), eta, ondorioz, ez zaie parte hartzen uzten goi mailako arkitektorik ez baina Bide, Ubide eta Portuetako ingeniariak dituzten enpresei.

**LAUGARRENA.**
Ondorioz, 7.5.2 klausulako 4. puntua honela idatzi beharko litzateke:

"4. Honelakoak izan behar dira kontratu hau egiteko eskaintzen den giza taldea eta talde horretako kideen curriculum vitae:
- Goi mailako arkitekto bi edo Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari bi (haietako bat taldeko zuzendaria izango da).
- Zuzenbideko lizentziadun bat, hirigintza arloan esperientzia duena".

Lehenengo, bideetako ingeniariek ere eskumenak dituztelako arlo honetan, arkitektoekin batera eta maila berean; bigarren, bideetako ingeniariek hirigintza eta antolamendu arloko eskumenak aitortuta dauzkatenez, ez dagoelako eragozpenik Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari bat taldeko zuzendaria izateko.

Horren ondorioz, honako hau:

Bizkaiko Foru Aldundiari ESKATZEN DIOT aurkeztutzat jo dezala idazki hau, onar dezala, eta hori dela bide, aurkeztutzat jo dezala Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean 2010eko martxoaren 1ean argitaratu zen lizitazio-iragarkiaren aurkako KONTRATAZIO ARLOKO ERREKURTSO BEREZIA. Lizitazio horren administrazio-klausula partikularren plegua GARRAIO ETA HIRIGINTZA SAILAREN OTSAILAREN 15EKO 162/2010 FORU AGINDUAREN bidez onetsi zen. Izan ere, foru agindu horren bidez HASIERA EMAN ZITZAION ITSASADAR-INGURUNEKO ANTOLAMENDUAREN HARMONIZAZIO EREMUARI ETA IKERKUNTZA EREMUARI BURUZKO INFORMAZIO ETA DIAGNOSIAREN AGIRIA EGITEKO AHOLKULARITZA TEKNIKOKO ZERBITZU-KONTRATUA ADJUDIKATZEKO PROZEDURARI. Eskatzen dut, halaber, errekurtso horrek dagozkion izapideak jarraitu ditzala, errekurtsoa onesteko ebazpena eman dadila, eta, ondorioz, honako hau erabaki dadila:

a. Aurkaratutako egintza ETETEA, eta erabaki hori hartzeko honako hau hartzea oinarritzat: Bide, Ubide eta Portuetako ingeniari askori eragin ahalko litzaiekeen kaltea; lizitaziora aurkezteko ezintasuna; Konstituzioak babesten dituen eskubideei (Legearen aurreko berdintasunaren eskubidea) zein kontratazio publikoaren araudia inspiratzen duten eskubideei (objektibotasunaren eskubidea eta berdintasunean eta diskriminaziorik gabe lehia askean aritzekoa) eragin ahalko

litzaizkiekeen kalteak. Bestalde, errekurtsoa aurkeztea gomendatzen duten arrazoiek eskubide onaren itxura dute, eta horrek aholkatzen du eskatutako ETETEA onartzea. Izan ere, etete hori, azken finean, interes publikoaren mesedetan ere bada, lizitatzaile gehiago lehiatzeko aukera emago bailuke —gaitasun tekniko eta profesional osokoak—, eta, horrela, proiektu gehiagoren artean aukeratu ahalko litzateke. Beraz, horrek onura ekarriko lioke, zalantzarik gabe, prozeduraren kalitateari. Gainera, beti saihestu ahalko lireteke epaile batek adjudikatzeko prozedura deuseztatzeko geroago eman lezakeen epai batek izango lituzkeen ondorioak. Etetea onartuko ez balitz, eta prozeduraren izapidetzeak aurrera jarraituz gero, errekurtsoaren legezko helburua galdu ahalko litzateke, eta, horrenbestez, behin betiko hautsiko litzateke objektibotasunaren, berdintasunaren, diskriminazio ezaren eta lehia askearen printzipioen aplikazioa. Gogoratu behar da printzipio horiek direla Europar Batasun osoaren barruan egiten den administrazio-kontratazioaren zutabeetako bat.

b. Administrazio-egintza DEUSEZTATZEA, Zuzenbidearen kontrakoa baita.

c. ALDATZEA bai Itsasadar-inguruneko antolamenduaren harmonizazio eremuari eta ikerkuntza eremuari buruzko informazio eta diagnosiaren agiria egiteko aholkularitza teknikoko zerbitzu-kontratuaren lizitazio-iragarkia, bai eta administrazio-klausula partikularren plegua ere —Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean 2010eko martxoaren 1ean argitaratu zena—, iragarki eta pleguetan sartzeko BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIAK.

d. BERRIRO ARGITARATZEA deialdi publiko hori, administrazio-klausula partikularren pleguan egin beharreko aldaketa guztiak dituela — hain zuzen ere, eskatutakoak—, BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIAK deialdi berrian aurkeztu ahal daitezen.

Zilegi denez, aurreko guztia eskatzen dut, Bilbon, 2010eko martxoaren 7an.

SIN.: EUSKAL HERRIKO BIDE, UBIDE ETA PORTUETAKO INGENIARIEN ELKARGOKO PRESIDENTEA

1. Euskal Herriko Bide, Ubide eta Portuetako ingeniarien Elkargoko presidenteak ba al dauka errekurtsoa aurkezteko nortasuna eta ordezkaritza? Euskadiko Bide, Ubide eta Portuetako Ingeniarien Elkargoak errekurtsoa jartzeko legitimaziorik badu? Nola egiaztatu beharko lituzke?
2. Aurkeztutako errekurtsoa aurkeztu al daiteke goian deskribatutako administrazio-egintzaren aurka? Arrazoitu.
3. Errekurtso hori horretarako dauden epeetan eta moduan eta ebazteko eskuduna den organoari aurkeztu al zaio? Zein da errekurtso hori ebazteko organo eskuduna?
4. Errekurritutako egintza eten egin behar da ala ez? Arrazoitu.
5. Administrazio-klausula partikularren pleguetan errekurritu den klausulak antolamendu juridikoa hausten al du? Aurkeztutako errekurtsoa onetsi egin behar da ala ez? Zein ondorio izango lituzke errekurtsoa onesteak?
6. Zein dira ematen den ebazpenaren aurka jar daitezkeen errekurtsoak?
7. Zein dira zuk aurreko galderan egoki iritzitako errekurtsoak onesteak dituen ondorioak?

---

000009